



14.ZIRKULARRA

2019-20 Denboraldia

EMAKUMEZKOEN GORENGOEN LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak, aurtengo denboraldiko Emakumezkoen Erregionalen Gorengoena liga txapelketa lehiaketa antolatzen du, honela:

1) KLUB PARTAIDEAK

I TALDEA: ALLERRU K.J.K.E.; BETI GAZTE K.J.K.E.; HONDARRIBI F.E.; TRINTXERPE K.E.; OIARTZUN K.E.; DUNBOA EGUZKI C.D. eta MARIÑO C.D.

II TALDEA: INTXAURDI K.E.; AXULAR K.K.E.; AÑORGA K.K.E.; SANTO TOMAS LIZEOA K.E.; IRAULI BOSTEKO K.K.; ORIOKO F.T. eta EUSKALDUNA S.D.

III TALDEA: MUTRIKU F.T.; LEINTZ A. ALOÑA; INTXURRE K.K.E.; AMAIKAK BAT K.E.; EIBAR S.A.D.; ELGOIBAR C.D. eta ZESTOA K.B.

2) LEHIAKETA SISTEMA

Emakumezkoen Gorengoena liga bi fase ezberdinetan jokatuko da, puntuen bidez eta bi itzulietara (14 jardunaldi), Euskadiko Futbol Federakuntzako Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituz.

A. Igoera Fasea

Igoera Faserako lehenengo lau taldeak (4x3=12) eta bosgarren bi hoberenak (guztira 14) zazpi ekipoko bi taldetan elkartuko dira fase hau jokatzeke bi itzulietara (14 jardunaldi). Lortutako puntuak eta jokatutako partiden arteko ratio hoberena daukatenak izango dira bosgarren hoberenak.

Emakumezkoen Ohorezko Erregional mailara lehenengo bi sailkatuak igoko dira, betiere menpeko taldeak ez badira.

Igoera plaza horiek betetzeko, lehen eta bigarren sailkatuek multzoak gurutzatuz hobekien sailkatu den taldearen etxean jokatuko dute. Irabazleek Finala eta galtzaileek hirugarren eta laugarren postua jokatuko dute, betiere finalisten artean menpeko talderik egonez gero.

B.Gipuzkoa Kopa:

Besteek Gipuzkoako kopa jokatuko dute.

3) IRAUPENA ETA ALDAKETAK

90 minutu, bost aldaketa, eta gehienez zazpi ordezeko eserlekuan.

4) ORDUTEGIAK

Klub antolatzaileek, aukera izango dute, beraien partidua larunbat arratsaldera aurreratzeko, 15:30etik aurrera, aurkakoaren baimenik gabe.

5) XEDAPEN OROKORRA

Emakumezkoen erregionalen ohorezko mailaren helburua 14-16 taldeko multzo konposizioa lortzea denez, hori dela eta, zirkularrean aurreikusitako igoera eta jaitsierekin eta Euskal Ligatik egon daitezkeen jaitsierekin multzoa talde bakoitiek geratuko balitz, lurraldeko kategoria guztietan igoera eta jaitsierekin erabiltzen den irizpide orokor berbera erabiliko da, hots da:

- a) Emakumezkoen Gorengo Mailako talde bat igota.
- b) Emakumezkoen Erregional Ohorezko Mailatik jaitsitako taldeen artean hobeto sailkatu denaren jaitsiera saihestuz.
- c) Eta horrela behin eta berriro

Izena emandako taldeek gehienez 25 lizentzia izan dezakete eta kopuru honetan “FA”; “FJ” eta “FC” lizentziak zenbatuko dira; azkenekoan (FC) 15 urteak beteak izan beharko dituzte. **Lehen ekipoan inskribatutako eta FJ “ edo “FC” lizentzia duten jokalariek ezingo dute jokatu lizentzia hauei dagokien taldean, hau da, jubenil eta kadetea.**

6) DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan lehendabizi, Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenez, Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

Donostia, 2019ko azaroa
GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA

-Lehendakaria-
Juan Luis Larrea Sarobe.